



GRANOLLERSEKO MANIFESTUA

EUROPAKO UDALERRIETAN LANDATUTAKO BIODIBERTSITATEA SUSTATZEA

2025eko apirilaren 29tik 30era
Granollersen, Espainia, egindako «**Tokiko Elikagai Politiken bidez Landatutako Biodibertsitatea Sustatzea**» Europako 1. Sinposioko, erakunde antolatzaileek eta parte-hartzaileek honako dokumentua prestatu dugu, Europako udalerriei eta gobernantza maila gorenei ekintzarako deia egiteko. Europako elikagaien segurtasuna mehatxatzen duen aurreikustezintasun gero eta handiagoaren argitan, Manifestu honetan landatutako biodibertsitatea proposatzen dugu Europa osoan tokiko elikadura sistema jasangarri eta osasungarriak eraikitzeko funtsezko palanka gisa.



foodpolicies4biodiversity.com

LANDATUTAKO BIODIBERTSITATEA: ZER DA ETA ZERGATIK DA GARRANTZITSUA

Agrobiodibertsitatea gizakiek elikadurarako eta nekazaritzarako nahita landu eta hazitako etxeko laboreen, animalien eta zuhaitzen aniztasunari dagokio. Horregatik, basa-biodibertsitatek desberdintzen da biodibertsitate hau. Laboreen kasuan, **Landatutako Biodibertsitateaz** ari gara, bertan barne hartzen dira tokian tokiko barietate, barietate tradizional eta tokiaren arabera egokitutako kultibar ugari.

Landatutako biodibertsitatea gure elikadura katearen lehen maila da, eta funtsezko zeregina du elikadura subiranotasunean eta sistemaren erresilientzian. Beste era batera esanda, **hazlak bizltza dira**, eta haien barietatea eta dibertsitatea dira ingurumen baldintzetan, ekonomian eta geopolitikan aldaketei aurre egiteko bermerik onena, baita ziurgabetasuna eta disrupzioa ezagutzea dituzten une zailei aurre egiteko ere.

Elikagaien ekoizpena optimizatzeko, milaka urtez, nekazariak beren lursailetan emaitzarik onenak eskaintzen zituzten landareak hautatu eta egokitu dituzte, tokiko klimaren, altitudearen, lurzorua eta beste baldintza batzuen arabera, **ez balta go irtenbide bakar bat testuinguru guztietarako ballagarria dena**. Nekazariak eta hobetzaile begetalek ere landatutako biodibertsitate berria sustatzen dute, eta horretarako, garatzen dira barietate egokituak, nekazari selekzio berriak eta nekazaritza ekologikoaren eta orientazio agroekologikoaren beharren eta eskakizunen

arabera eboluzionatzen duten populazio berriak. Naturarekin harmonian egiten dute, komunitateak beren lurraekin eta nortasun kulturalarekin konektatuz, eta zuhurtasun-printzipioarekin bat datozen metodoak aplikatuz, hori baita ingurumenaren gaineko giza ekinza jasangarriaren oinarria.

Haziak baliabide estrategikoa ere badira, horiek gabe elikagaiak ezin direlako landatu. Nekazariak, hazi-sareek, hobetzaile begetalek eta Europako **herritarrek hazlak kolektiboki kudeatu** ahal izango dituztela bermatzeak, **herri-ondasun gisa, indartsuago egiten gaitu**, batez ere ziurgabetasun garaietan. Horregatik, landatutako biodibertsitatearen zaindari horien bizi-baliabideak zaindu behar ditugu.

Landatutako biodibertsitatearen eta tokiko ezagutzan dugun aberastasuna gure sukaldaritzako tradizioen, tokiko plateren barietatearen eta praktika kulturalen bizkarrezurraren parte da. Horri guztiari esker, elikagai osasungarriak, zapoetsuak eta askotarikoak eraman ditzakegu gure mahaietara, **elikagaiak ez direlako soilik jangalak, eta, hala, hazlak ez direlako salgai solia**.

Elementu horiek funtsezkoak dira gizakiak elikatzeke duen eskubidea gauzatzeko.

EUROPAKO EGUNGO ELIKADURA-SISTEMEN ERRONKAK

Europako egungo nekazaritzako elikagaien sistema oinarritzen da intsumoen erabilera handia duen monolaborantzen nekazaritza intentsiboan, ongarririk eta pestizida sintetikoaren mende, eta gerrak suntsitutako Europako elikagaien segurtasuna lortzeko irtenbide praktikoa gisa sortu zen. Nekazaritza eta elikadura sistema industrialak modu esponenzialean estandarizatu, globalizatu eta kontzentratu ziren heinean, nekazaritza biodibertsitatea izugarri murriztu zen. Gaur egun, **ezagutzen ditugun 250.000 eta 300.000 landare-espezie jangarrietatik % 4 soilik erabiltzen dituzte gizakiek (150-200), eta hiruk bakarrik (arroz, artoa eta garia) ematen dute landareetatik lortzen ditugun kalorien eta proteinen ia % 60.**

Produktu ultraprozesatu eta oso kontzentratutako hornidura kateetan zein hazien merkatuetan oinarritutako janari merkeari lotutako paradigmatik osasungarriak ez diren dietetara garamatza, eta gizartearentzat zein ingurumenarentzat kaltegarriak diren patroi ekonomikoak sustatzen ditu (adibidez, nekazaritzako elikakatearen mailek **berotegi-efektuko gasen munduko emisio antropogeniko guztien % 21 eta % 37 artean** eragiten dute). Horrek oparotasun ilusioa sortzen du, ezkutuko kostu handiarekin.



Eredu horrek jada ez die erantzuten egungo erroken, eta ez die balio elikagaien segurtasun eta subiranotasun asmoei. Gero eta ezegonkorragoa den mundu honetan, nekazari, elikadura sistemako eragile eta herritarrek zaurgarriak bihurtzen gaituzten ekoizpen sistemak eta hornidura kateen mende gaude gehiegi, eta **Europako Akllesen orpoa** ordezkatzen dute haiek.

Landatutako biodibertsitatea gaitzek aukera gutxiago dakartza kanpoko faktoreen aurrean egokitzeko, muturreko aldaketa eta fenomeno meteorologikoen aurrean zaurgarritasun handiagoa, baita inportazioekiko mendekotasun handiagoa ere eta, ondorioz, erresilientzia txikiagoa.

Tokiko komunitateak beren ezagutzetatik eta ekoizpen baliabideetatik, hornidura kateen gaineko kontrolatik eta kontsumo ereduetatik kanpo geratu dira, eta horrek haien ehun soziala, kulturala eta ekonomikoa ahuldu du.



UDALERRIAK ETA TOKIKO KOMUNITATEAK, EUROPAKO HIRI-ESKUALDE NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SISTEMEN ALDAKETAREN ERAGILE: BEHETIK GORAKO IKUSPEGIA

Egoera zaila izan arren, Europa osoko tokiko komunitate eta lurralde asko antolatuta dira eta garatu dituzte ondasun publikoen kudeaketa jasangarria beren ekintzaren erdigunean jartzen duten lurralde-ekimen arrakastatsuek. Berrikuntzarako gaitasun handia erakusten ari dira, eta tokiko elikadura sistema erresiliente, osasungarri eta bidezkoetarako bidea gidatzen, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko potentzial handiarekin.

Ekimen horiek inplikatu dituzte administrazio publikoak, nekazariak eta haien erakundeak, elikagaien egileak, txikizkako merkataritza, ikertzaileak, kontsumitzaileak eta tokiko, erkidegoko

eta estatuko gizarte zibil antolatua, gero eta interkonektatuago baitaude, bai Europan, bai mundu osoan, elkarri lagunduz eta partekatuz.

Ekimen horiek palanka estrategikoak dira, eraldaketa sistemikoa ekar dezaketenak. Udalerrri aktiboen asmoa da esperientzia positibo eta jardunbide egoki horiek Europan lurralderatutako elikadura-sistemen eredu berri baten ardatz nagusi bihurtzea, landatutako biodibertsitatean eta kalitatezko elikagai osasungarri eta zapoetsuetan oinarrituta.



EUROPAKO ELIKADURA SISTEMA JASANGARRIETARAKO IKUSPEGIA ETA BIDE-ORRIA

Zein da gure ikuspuntua?

2050ean, Europako udalerrri guztiek hiri-eskualde elikadura-sistemak lehenetsiko dituen elikadura-politika bat izango dute, elikagai osasungarriak eta zapoetsuak eskainiko dituen, landatutako biodibertsitatean eta tokian tokira egokitutako hazietan oinarrituta, baliabide naturalak planetaren mugen barruan erabiliz eta bere komunitate eta biztanleentzat ekonomikoki bideragarriak diren bizi-bitartekoak bermatuz. Politika horiek Europako nekazaritzako elikagaien sistema justu, erresiliente eta jasangarriaren funtsezko zutabea izango dira etorkizunerako, hornidura kateek eta kontsumo ereduak pertsonen ongizatearen alde lan egin dezaten.

Politika horiek maila anitzeko lege-, politika- eta finantza-esparru batek babestu eta sustatuko ditu, eta elikadurarako giza eskubidean oinarritutako ikuspegi batean oinarrituko dira.

Zer sistemak ahalbidetu dezakete ikuspegi hori?

Ikuspegi hori gauzatzeko, **nekazaritza ekologikoa eta orientazio agroekologikoaren ekolozpena orokortu** behar dira; ebidentziak gehien bermatzen dituen estrategiak dira, elikadura sistema jasangarri eta osasungarriak eraikitzeko, mundu mailako larrialdiak arintzeko eta horietara egokitzeko, eta elikadura eta hazi subiranotasuna bermatzeko. [Gaur egun, nekazaritza ekologikoa Europar Batasunean erabiltzen den nekazaritza azaleraren % 10 baino gehiago da, eta 419.000 ekoizle baino gehiago ditu estatu kideetan.](#) Agroekologiak ikuspegi zabala, integrala eta prozesuetara bideratua eskaintzen du, ingurumen eta ekologia kezka dimentsio sozial, kultural, politiko eta ekonomikoekin uztartzen baititu. Horregatik, agroekologiak esparru egokia eta eraldaketa sistemikorako bidea eskaintzen ditu.

Zein da sistema horien barruan landatutako biodibertsitatearen zeregina?

Landatutako biodibertsitatea sistema horien bihotzean egongo da, nekazariekin, hazi sareekin, hobetzaile begetalekin eta tokiko eragileekin, baldintza espezifikoetara egokitutako eta ondasun publikotzat hartutako kultibar erresilienteak dinamikoki kudeatuz. Udalerriek herritarrekiko hurbiltasuna eta beren gaitasun berritzailea baliatuko dituzte landatutako biodibertsitatea elikagaien ekoizpenean, banaketan eta kontsumoan zein hiri-plangintzan integrazteko.

Landatutako biodibertsitatearen¹ cerabilera jasangarriak honako elementu hauek biltzen ditu:

- tokiko barietateen eta barietate tradizionalen kontserbazioa eta erabilera jasangarria;
- nekazal barietate eta populazio berriak edo lehendik zeudenak hautatzea eta landatzea;
- labore erresilienteen hobekuntza eta merkaturatzea, hobekuntza begetal ekologikoko prozesuen emaitza, nekazaritza ekologikoaren eta orientazio agroekologikoaren egungo behar eta eskakizunekin eboluzionatzen duen agrobioaniztasuna sortzen duen ikuspegia;
- arreta berezia eskaintzen zaie partaidetza-programen ondoriozko haziei (nekazarien eta balio-kateko eragileen inplikazio zuzenarekin), kode irekiko hazi-sistemei laguntzen baitiete.

1. Gaur egun, hainbat termino erabiltzen dira elikadurara eta nekazaritzara bideratutako kultibarrak aipatzeko (esaterako, elikadurarako eta nekazaritzarako baliabide fitogenetikoak, nekazaritzako biodibertsitatea, etab.), bakoitza desberdintasun txikiekin —edo esanguratsuekin—. "Landatutako biodibertsitatea" terminoaren erabilera babesten dugu, landatzen, eraldatzen eta kontsumitzen denari zuzenean agitan baitio erreferentzia. Kontzeptu horretan sartzen dira tokiko barietate tradizionalak, nekazarien barietateak eta populazioak, hobekuntza parte-hartzaileko programen emaitzak, populazio gurutzatu konposatuak eta populazio dinamikoak, bai eta hobekuntza begetal ekologikotik eratorritako polinizazio irekiko barietateak eta lerro puruak ere, bereziki ekoizpen ekologikoko eta orientazio agroekologikoko sistemarako diseinatutako hobekuntza (EBko ekoizpen ekologikoari buruzko araudiko Material Heterogeneo Ekologikoa -MHE- eta Barietate Ekologikoak barne). Esparru horretan, proposatzen dugu arreta berezia jartzea kode irekiko hazi sistemetan integrazten diren eta ugaltzeko murrizketa fisiologikorik ez duten kultibarrei.



IKUSPEGI HORI GARATU BEHAR DEN TESTUINGURUA

Kontuan hartuta

- kalkuluen arabera, [EBko herritarren % 75 hiriguneetan bizi direla](#) eta 2050ean proportzio hori % 80tik gorakoa izatea espero dela;
- nekazaritzako elikagaien sistemek, gaur egun pentsatuta dauden bezala, ezin dutela hiri eta herrietako elikagaien eskaria asetu modu sozialean, ekonomikoki jasangarrian eta ingurumenari erreparatuz;
- Europa osoan tokiko elikadura politiken esperientzia eta adibide positiboen oinarri sendoa dagoela, baina ez dutela maila anitzeko estrategia integralik eta ikuspegi sistematiko koordinaturik;
- landatutako biodibertsitatea oraindik baztertuta dagoela udalen elikadura-politiken agendetan, elikadura-sistemen eraldaketan berebiziko garrantzia duen arren;

testuinguru batean non

- EBk nekazaritza ekologikoak elikagai-sistema jasangarri batzuetarako duen garrantzia aitortzen duen, ekoizpen ekologikorako ekintza-plan integral bat ezarri duen eta finantza-laguntza eskaintzen duen NPBren barruan; eta estatu kideek NPBren funtsen erabilera orientatzeko inplementazio-neurriak zehaztu ditzaketen, landatutako biodibertsitatea esplizituki babesteko;
- EBren Kohesio Politikak, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak eta Kohesio Funtsak garapen jasangarriko udal-ekimenak babes ditzaketen, hiri-eskualde elikadura-politikak barne, erronka ekonomiko, ingurumeneko, klimatiko, demografiko eta sozialei aurre egiteko.

Nekazaritzako elikagaien sistema Jasangarriagoetarako trantsizioa ezin da udalerririk gabe egin.

- Udalerriek beren gastu-ahalmena eta herritarrekiko hurbiltasuna balia ditzakete nabarmen laguntzeko elikadura-sistemak oinarritik eraldatzen;
- tokiko elikagai-politikek lurralde- eta kultura-dimentsioa integratu behar dute nekazaritzako elikagaien sistemaren funtsezko osagai gisa, hiri-eskualde ikuspegiaren bidez hiriko, periferiako eta landako aukerak eta beharrak berriz konektatuz eta lotuz.

Hortaz, honen aukera eta beharra badago:

- tokiko elikagai-politiken arloan udalerrietan dauden ekimenak babestea, Europa, nazio eta eskualde mailan mesedegarria den esparru juridiko baten bidez, eta finantzaketa-fluxu egokiek, hiriguneen eta landa-eremuen arteko lotura hiri-eskualde ikuspegi baten barruan sartuz;
- mota horretako ekimenak Europa osoan eskalatzea eta nekazaritzako elikagaien sistemen trantsizio agroekologikoa udalen elikagai-politiken elementu nagusia izango dela bermatzea;
- landatutako biodibertsitatea elikadura-politika horien parte dela bermatzea.



EKINTZARAKO DEIA EUROPAKO UDALERRIENTZAT

Funtsezko udal-estrategiak MUFPPren ekintza-esparruaren barruan

2015ean, 100 hiri baino gehiago atxiki zitzaizkion Milango Elikadura Politiken Itunari (MUFPP, ingelesezko sigletan), adierazpen bat eta lan tresna zehatz bat udalerriek elikadura sistemak hiri-plangintzan sar ditzaten.

Ordutik, mundu osoko hiriak gero eta gehiago bihurtu dira elikadura politika integralak garatzeko laborategi, elikadura sistemen dimentsio desberdinak lantzen dituztenak, MUFPPn identifikatutako sei kategoriatan lan eginez.

Granollerseko Manifestuaren Eranskinean agertzen diren 32 ekintza estrategiko zehatzen helburua da landatutako biodibertsitatea MUFPPren sei kategorietan integratzea, honako helburuekin:



1. GOBERNANTZA: ekintza horien helburua da landatutako biodibertsitatearen kudeaketa komunitarioan eta dinamikoan aktiboak diren tokiko erakundeak indartzea, aliantzak sortzea eta eragile anitzeko parte-hartzea sustatzea, bai eta udalerrien arteko zein udalerrri barruko eta maila anitzeko lankidetzak sustatzea ere, benetako gobernantza parte-hartzailea lortzeko.

Adib.: elikadura-aholkuak, tokiko eragileen mapak, sail publiko eta lantalde berriak, ekoizleekin proiektu komunak, politiken jarraipen-esparruak.



2. DIETA JASANGARRIAK ETA ELIKADURA: ekintza horien helburua da udalerriko taldeak sentsibilizatzea eta mobilizatzea dieta ekologiko, bioanitz, barazkietan aberatsa eta geografiaren eta kulturaren ikuspegitik egokia izatearen garrantziaz.

Adib.: eskola-komunitatearentzako sentsibilizazio-kanpainak, talde-sukaldaritzako prestakuntza-jarduerak, eta landatutako biodibertsitatearen elikadura-ezaugarrien ikerketa eta zabalkundea.



3. GIZARTE- ETA EKONOMIA-EKITATEA: udalerriek sustatu nahi dute landatutako biodibertsitatea gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioari lotutako tokiko elikadura proiektuetan sartzeko, bai eta pertsona guztiek elikatzeko duten eskubidea gauzatzera bideratutako ekintzetan ere.

Adib.: elikagaien bankuak, lantegiak, sukalde komunitarioak, kulturalki esanguratsua den gastronomiari buruzko prestakuntza-jarduerak.



4. ELIKAGAIEN EKOIZPENA: ekintza horien helburua hazi sistema formalak eta informalak indartzea da, hazi ekologikoen ekoizpena eta hobekuntza begetala, tokikoa eta deszentralizatua bultzatzeko.

Adib.: hiri-nekazaritzako programak; hazien banku komunitarioak, hazi-liburutegiak eta ekoizle-sareak; tokiko barietateak eta barietate tradizionalak berreskuratzea eta ebaluatzea; hobekuntza begetal ekologikoa bultzatzea; hazi eta plantula ekologikoak banatzea.



5. ELIKAGAIEN HORNIDURA ETA BANAKETA: ekintza horien helburua da tokiko elikakate osoan landatutako biodibertsitatea integratzea, ekintzailatza babestuz eta errespetuzko ekoizpen eta eraldaketa metodoen ondoriozko produktuei ikusgarritasuna emango dieten esparruak sortuz.

Adib.: elikagaien erosketa publiko jasangarria, tokiko inkubagailuak, merkaturatzeko bide laburrak, biodibertsitatearako bereizgarriak, artisau-eraldaketa eta intentsitate txikikoa.



6. ELIKAGAI XAHUKETA: kategoria honetako ekintzek ekonomia zirkularreko ikuspegiak babestu nahi dituzte ekoizpen, prozesatze eta txikizkako salmenta ekimenen barruan, lehenesten dutenak hobekuntza begetal ekologiko, parte-hartzaile edo kode irekiko sistemetatik eratorritako tokiko barietate eta populazio tradizionalen erabilera, horien ugalketa horizontala errazteko bitarteko gisa.

Adib.: buruxkatze-proiektuak, konpostajeko tokiko puntuak, soberako produktuak tokiko kateetan integratzea.



Udalen bide-orria maila anitzeko ekintzen bidez indartzea

Udallerriek MUFPPn eta Granollerseko Manifestuan zehaztutako bide-orria babesteko, hainbat legegintza-, politika- eta finantza-ekintza behar dira, hainbat mailatan, elikadura-sistemaren dimentsioetan epe luzearako baldintza onuragarriak sortzeko.

Europar Batasunean, arduradun politikoek honako hauek egin beharko lituzkete:

1. "Elikagaien erosketara publiko jasagarria"² sartzeko Kontratazio Publikoaren Zuzentarauaren hurrengo berrikuspenaren zati integral gisa, elikagai ekologikoetarako eta bidezko merkataritzakoetarako nahitaezko gutxieneko irizpideekin, eta puntuazio gehigarriak ematea orientazio agroekologikoko praktikei (ekoizpen ekologikoaren gutxieneko baldintzetatik harago), hala nola landatutako biodibertsitateari.
2. Eskualde Garapenerako eta Gizarte Kohesioa Europako funtsetan udalerrietara bideratutako elikagai-politikei eta landatutako biodibertsitateari ematen zaaien laguntza indartzea.
3. NPBn nekazaritza ekologikoari ematen zaion laguntza handitzea, baldintza sozialen esparruan, nekazaritza ekologikoari eta landatutako biodibertsitateari esleitutako aurrekontua NPBren Plan Estrategikoetan babestuta egongo dela bermatuz.
4. Bermatzea Landare Ugalketarako Materialaren (LUM) ekoizpenari eta merkaturatzeari buruzko EBren etorkizuneko araudiak benetan erraztuko duela landatutako biodibertsitatea tokiko nekazaritzako elikagaien sistemetan integratzea.
5. EBko Elikadurarako Hiri Agendaren Elkartean landatutako biodibertsitatea eta trantsizio agroekologikoa integratzea, elikadura sistema jasagarrien lehentasun gisa.
6. Esparru komun bat ezartzea, estatu kideek aukera izan dezaten landatutako biodibertsitatea aitortu eta zaintzeko, elikatze eskubidearen funtsezko osagai gisa.
7. Tokiko elikadura politikak eta eraldaketa agroekologikoa Europako ikerketa agendetan sartzeko, Europako berrikuntza plataformetan toki erakundearen eta udal sarearen presentzia sendoagoa ziurtatuz.

Eskualde eta probintzia mailan, autoritateek trantsizioa babestu dezakete:

1. Tokian toki ekoiztutako hazi eta elikagai ekologikoak integratuz, elikagaiak kontratatze lizitazio publikoetan nekazaritzako ekoizle eta langileentzat bidezko ordainsaria bermatuz.
2. Landatutako biodibertsitateak elikadura sistemetan duen integrazio maila ebaluatuz eta tokiko barietateen eskualdeko katalogoak sortuz, aniztasun hori sustatzeko eta babesteko tresna gisa.
3. Eskualdeko finantzaketa programak abiaraziz, landatutako biodibertsitatean, landare ugalketarako materialean eta hobekuntza begetal ekologikoetan ekintzazailtza bultzatzeko, bereziki enpresa txiki eta ertainen artean.
4. Tokiko ekimenen barruan landatutako biodibertsitatearekin lotutako proiektuei lehentasuna emango dieten esparru arautzaileak garatuz, hala nola parkeak eta nekazaritzako test-espazioak.
5. Ezagutza transferitzeko eta gaitzeko programak erraztuz udaleko langileentzat eta landatutako biodibertsitatearen kudeaketa dinamikoan eta sustapenean zentratutako elikadura-politiken eragileentzat.



Estatu mailan, arduradun politikoek egin dezakete:

1. Hazi ekologikoen eskaintza eta eskaria aztertzea eta estrategiak ezartzea 2036an nekazaritza ekologikoan hazi ekologikoetan % 100eko erabilera lortzeko.
2. Ekintza-plan nazionalak garatzea, udalerrientzako eta gizarte zibilarientzako finantzaketa-mekanismo egokiekin, FAOren Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoei buruzko Ekintza Plan Globalaren ildotik.
3. Laguntza programa nazional bat ezartzea, eskualdeko eta tokiko agintariak kontratazio jasagarria sustatzeko eta lizitazioetan dagozkion irizpideak txertatzeko (elikagai ekologikoen eta bioaskotarikoen gutxienekoak).
4. Landatutako biodibertsitateari eta horri lotutako kultura ezagutzari laguntza ematea elikadura eta klimako estrategia nazionaletan, bai eta bidezko trantsizio ekologikoko planetan ere.
5. Etiketatze sistema integralak ezartzea, elikagaiak irizpide askoren arabera baloratu ahal izateko, hala nola aitortutako ekoizpen metodoak (adibidez, ekologikoa), jatorria, urtarokotasuna eta erabilitako hobekuntza begetaleko teknikak.

2. https://foodpolicycoalition.eu/wp-content/uploads/2023/06/EN_Manifesto-for-establishing-Minimum-Standards-for-Public-Canteens-across-the-EU.pdf



GRANOLLERSETIK JARRAITU BEHARREKO BIDEA

Manifestu hau tokiko agintariei eta erabaki publikoko gainerako mailei dei egiten die, landatutako biodibertsitateari eta orientazio agroekologikoko elikadura sistemen eraldaketari helduko dieten eta sinergiak sustatuko dituzten elikadura politika integralak inplementatzeko, bai maila instituzionalen barruan, bai tokiko komunitateen artean. Landatutako biodibertsitatea herri-ondasun eta elikadura-sistemen erresilientziarako eta herritarren ongizaterako tresna estrategiko gisa birkokatzen duen narratiba berri bat planteatzen du.

Maila bakoitzeko ahalegin guztiak bat etorri behar dira akordio aldeaniztunen gidalerroekin, hala nola Elikadurarako Giza Eskubide Unibertsalarekin, FAOren Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoei buruzko Nazioarteko Itunarekin (ITPGRFA, ingelesezko sigletan), Nekazarien eta Landa Eremuetan Lan Egiten duten Bestelako Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenarekin (UNDROP, ingelesezko sigletan) eta EBren estrategiek.

Europa eta nazio mailan, arduradun politikoei dei egiten zaie nazioarteko eta EBko konpromiso horiek itzul ditzaten estrategia operatiboetan, kontserbazio programetan eta nekazaritzako biodibertsitatea babestu eta sustatzeko arau eta finantza tresnetan.

Udalerriek, tokiko agintariek, udal-sareek eta komunitateek zeregin erabakigarria dute nekazaritzako elikagaien sistema jasangarrietan landatutako biodibertsitatearen sustapenean, herritarrengandik hurbil daudelako, lurraldea sakon ezagutzen dutelako eta prozesu parte-hartzaileak aktibatze gaitasuna dutelako. Naturaren eta gizartearen artean elikadura itun jasangarri bat eratze gaitasun eragile politiko berritzaileak dira.

Elkarrekin, Europako elikadura sistemen eraldaketa bultzatzeko indar bihurtzeko, erresilientzia eta subiranotasunean oinarrituta. Horrek Europa ongizate eta aberastasun partekatuko gune bakar bihurtuko du.



ERANSKINAK. TOKIKO AUTORITATEENTZAKO EKINTZA ESTRATEGIKOAK

Hurrengo proposamenak 2022ko eta 2023ko *Let's Liberate Diversity* foroetan egindako tailerretan jaso ziren, baita landatutako biodibertsitateari eta tokiko politikei buruzko Agroekologiaren aldeko Udalerrien Sareko lantaldean ere. 2024ko irailaren 17an Milanen (Italia) egindako LiveSeeding hirien bilera ere ekarpenak egin zituzten, baita "Tokiko Elikagai Politiken bidez Landatutako Biodibertsitatea Sustatzea" Europako 1. sinposioko Batzordeko kideek eta 2025eko urtarrilaren 27an MUFPPrekin batera antolatutako Europako webinario espezifikoan parte hartu zuten hiriek ere.

Azken proposamenak ["Tokiko Elikagai Politiken bidez Landatutako Biodibertsitatea Sustatzea" Europako 1. sinposioan](#) barne hartu ziren.



GOBERNANTZA

1. Landatutako biodibertsitatea eta hazien tokiko sistemak integratzea, elikadura estrategien eta elikadura gobernantza parte-hartzaileko tokiko organoen funtsezko ardatz gisa, hala nola Elikadura Kontseiluak, gaian eragile aktibo guztiak berariaz eta zeharka txertatuz.
2. Landatutako biodibertsitatearen kudeaketa dinamikoan inplikaturako tokiko eragileen mapaketa egitea, batez ere elikakatean, lankidetzan aritu daitezkeenak ere identifikatuz.
3. Udal-langileentzako eta toki-administrazioetako enpresa laguntzaileentzako prestakuntza-programak diseinatzea eta ematea, landatutako biodibertsitatea eta hazien tokiko sistemak ardatz hartuta.
4. Erreferentziako espazio birtual komun bat sortzea eta mantentzea, landatutako biodibertsitatearen tokiko kudeaketarekin lotutako ekintzak hasi nahi dituzten eta informaziorako sarbidea behar duten tokiko agintarientzat baliabide zentro gisa balio dezan.
5. Udalerri barruko lantalde bat sortzea eta bertan aktiboki parte hartzea, landatutako biodibertsitatea eta hazien tokiko ekoizpena txertatuko dituzten epe luzeko politika finantzatuak diseinatzeko, udalerririk egindako elikadura sistema ekologikoak eta orientazio agroekologikokoak sustatzeko ekintzetan.
6. Udalerrien arteko lantaldeak sortzea, bereziki udalerririk handiak landa-inguruneekin lotuz, eta maila anitzeko foroak (eskualdeetako eta mugaz gairik lankidetzak barne), proposamenak sortzeko, jardunbide egokiak aztertzeko eta hiri-eskualdeko ikuspegitik landatutako biodibertsitatea indartuko duten elikadura-politikak ebaluatzeko.

7. Hiri espazio jasangarriak sortzea elikadura-auzoetan, topaguneak, aliantzak, prestakuntza eta gozamina sortzeko tresna publiko gisa, herritar guztientzako elikadura jasangarria eta bioanitza erdigunean kokatuz, tokiko nekazarien, eragile soziokulturalen eta herritarren arteko interakzioa indartuz, eta landa eta hirien arteko loturei eutsiz.
8. Aliantzak ezartzea tokiko nekazariarekin, hobetzaile begetalekin, hazien ekoizleekin eta landatutako biodibertsitatearen kudeaketa dinamikoan aktiboak diren erakundeekin, lotutako elementuak nekazaritzako elikagaien sisteman sartzea ahalbidetuko duten elkarlaneko proiektuak garatzeko.
9. Tokiko elikagaien politikak ezartzeko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta kontuak emateko esparru bat garatzea eta gauzatzea, tokiko sistematan landatutako biodibertsitatea sustatzeko.

DIETA JASANGARRIAK ETA ELIKADURA



1. Tokiko komunitateekin garatutako sentsibilizazio jarduerak eta hezkuntza proiektuak ezartzea - zaurgarritasun egoeran dauden biztanle taldeak barne -, elikagai freskoen, tokikoaren, urtarokoaren, bioaskotarikoaren, ekologikoaren eta barazki ugari dieten onurak eta gozamina sustatzeko, kulturalki esanguratsuak diren errezetak eta elikagai konbentzional eta ultraprozesatuekiko desberdintasunak nabarmenduz.
2. Elikagaien eraldaketan parte hartzen duten tokiko eragileei prestakuntza eskaintzea, batez ere sukaldaritzan



kolektiboan lan egiten dutenei (hala nola sukaldariari eta eskoletako, ospitaleetako, adinekoen egoitzetako, lan jantokietako, erakunde publikoetako eta eskala handiko ekitaldietako sukaldeko langileei), bai eta artisau lantegietan edo intentsitate txikiko lantegietan eta sukaldaritzako komunitarioetan lan egiten dutenei ere, landatutako biodibertsitatean oinarritutako dieta ekologikoetan, leun eta artisau-prozesatzeko tekniketan, eta errezeta berrietan edo kultur garrantzia dutenetan oinarrituta.

3. Landatutako biodibertsitatearen nutrizio-ezaugarriak lantzen dituzten proiektuak garatzea, bereziki tokiko barietateei eta barietate tradizionalari dagozkienak, eta emaitzak herritarrei ikusaraztea, haien onurei buruz sentsibilizatzeko.



GIZARTE- ETA EKONOMIA-EKITATEA

1. Gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioko tokiko proiektu ekologikoak babestea, landatutako biodibertsitatea eta elikakatean hazien tokiko hautaketa eta ekoizpena integratzeko, hala nola komunitateak babestutako nekazaritza ekimenak, ekoizleen edota kontsumitzaileen kooperatibak, merkatu kooperatiboak eta eraldaketa kooperatibak.
2. Produktu ekologikoen eta bioaskotarikoen tokiko hornitzaileak elikadura eskubidearekin lotutako ekintzetan sar daitezzen erraztea, hala nola elikagaien bankuetan edo elikagai kupioen sistemetan.
3. Baliabide egokiak ematea (bereziki prestakuntza, lurra eta haziak) komunitate migratzaileentzat kulturalki garrantzitsuak diren laboreak ekoizteko.
4. Turismo arduratsurako proposamenetan, tokiko produktu ekologikoei eta landatutako biodibertsitateari lotutako tokiko gastronomia sustatzea.



ELIKAGAIEN EKOIZPENA

1. Material egokietarako sarbidea hobetzea, udal egituretatik edo aliantza espezifikoaren bidez hazi eta platula ekologikoak sortuz eta emanez (bereziki, tokiko barietate eta populazioetakoak, tradizionalak, hobekuntza begetal ekologiko, parte-hartzaile edota deszentralizatutik datozenak, edo kode irekiko sistemei lotutakoak), tokiko nekazariarentzat eta hiri nekazaritzako programetarako, hala nola komunitate eta eskola baratzeetarako.
2. Komunitatean oinarritutako hazien tokiko sistemak indartzea, hazien banku komunitarioen, hazien liburutegien eta nekazarien sareen garapena babestuz nekazarien hazi ekologikoak erabiltzeko, bai eta haziak ekoiztera eta hobekuntza begetal ekologikora bideratutako ETEen

ekintzaitza ere, plantulen ekoizpenean arreta berezia jarrita.

3. Ekoizpen ekologikoko edo orientazio agroekologikoko sistemetarako aniztasunaren eskuragarritasuna handitzea, hobekuntza begetaleko ekintzen bidez: hiri-eskualde eremuan tokiko barietateak eta barietate tradizionalak berreskuratzea eta probatzea, hobekuntza begetal ekologiko, parte-hartzaile edota deszentralizatua inplementatzeko eta babesteko programak, herritarren integrazio handiarekin.
4. Ekoizpen ekologikoan landatutako biodibertsitatearekin lotutako onurei eta praktikei buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak eskaintzea nekazari gazteei, bai eta nekazaritzako ekoizpeneko teknikariari eta koordinazioko langileei ere (ekoizleen elkarteak eta sindikatuak), biodibertsitatearekin konprometitutako belaunaldi berri bat sustatzeko.
5. Hiriko espazioetan komunitate eta eskola baratze ekologikoak ezartzea, baliabide egokiekin (prestakuntza eta haziak barne), herritarrek askotariko elikagaiak, osasungarriak eta jasangarriak ekoizteko.
6. Landatutako biodibertsitatea eta hazien tokiko ekoizpena integratzen dituzten proiektu ekologikoetarako udal-lurren bankuek laborantza-lurretarako sarbidea lehenestea, biodibertsitatean oinarritutako ekimenetarako espazioa bermatuz.
7. Lorategi eta arboreto esperimental, ekologiko eta bioanitzak sortzea berdeguneetan, hala nola hiriko parke eta lorategietan, tokiko landare aniztasuna sustatzeko eta ikusarazteko.



ELIKAGAIEN HORNIDURA ETA BANAKETA

1. Landatutako biodibertsitatearen hornitzaile ekologikoen eta tokiko hornitzaileen integrazioa sustatzea elikagaien kontratazio publikorako udal estrategia eta programetan, parte hartzeko irizpide egokiak eta janari osasungarri eta jasangarriak bermatuko dituzten gutxieneko estandar zorrotzagoak aplikatuz.
2. Tokiko elikakate osoan barietate eta populazio tradizionalak sartzeko laguntzea, bai eta hobekuntza ekologikoaren, lankidetzakoaren edo kode irekikoaren ondoriozko barietate egokituak ere, elikagaien eraldaketa eta txikizkako banaketa barne hartuz.
3. Inkubagailuak, nekazaritzako elikagaien test-espazioak eta tokiko elikadura-zentroak ezartzea, eskala txikiko ekimen ekologikoak eta orientazio agroekologikokoak laguntzeko, lehenetasuna emanez komunitateari lotutako



proiektuei eta ekoizpenean, prozesatzean (intentsitate txikiko teknikak azpimarratuta) edota banaketan landatutako biodibertsitatearen kudeaketa ekologikoa sustatzen dutenei, ontziratze eta garraio jasagarrietan arreta jarrita.

4. Sentsibilizazio-kanpainak eta zabalkunde-jarduerak egitea nekazari txikien eta hazi-sistema lokalen garrantziari buruz, eta landatutako biodibertsitateak datozen produktuak sustatzea (kultura-ondarearen parte gisa ere), batez ere eskola-komunitatearen, zaharberritze kolektiboaren eta txikizkako merkataritzaren artean.
5. Bereizgarriak sortzea, lehendik daudenekin bat etorriz, landatutako biodibertsitatea balioan jartzeko, kate osoan zehar tokiko nekazaritzako elikagaien sistemen parte gisa.
6. Elikagaien artisau-prozesatzera eta intentsitate txikira egokitutako esparru arautzaileak garatzea, landatutako biodibertsitatearekin lan egiten duten eskala txikiko ekimenetarako bereziki diseinatuak.



ELIKAGAIEN XAHUKETA

1. Jarduera komunitario gisa buruxkatzeko ekimenak abian jartzea, sistema ekologikoetan edo orientazio agroekologikoko sistemetan landatutako biodibertsitate proiektuekin edo hazien tokiko ekoizpenarekin lotuta. Elikadura eta gizarteratze soziolaboralerako eskubideen programekin koordinazioa sustatzea, elikagaiak galtzea eta xahutzea murrizteko.
2. Tokiko eta komunitateko konpostajea babestea, eta lursail eta baratze ekologikoetan edo orientazio agroekologikokoetan ura eskuratzeko aukera bermatzea, landatutako biodibertsitatea eta tokiko testuingurura egokitutako haziak ekoizteari lehentasuna emanez.
3. Tokiko negozio txikiei pizgarri ekonomikoak ematea, landatutako biodibertsitate ekologikotik datozen elikagaien soberakinak aprobetxatzen badituzte eta balioa gehitzen badiete.



